

NESKAK ETA MUTILAK - NORBERA, DEN BEZALAKOA - Aingeru Mayor, Susana Monteagudo Duro



Munduan neska eta mutil asko daude. Milioika. Eta ez daude bi berdin. Norbera bere erara da neska edo mutila. Badira ile luzea daramatenak, eta baita motza daramatenak ere. Belarritakoak daramatzatenak, eta ez daramatzatenak. Neska asko printzesaz mozarrotzen dira, eta zenbait mutil ere bai. Eta badira pirataz mozarrotzen diren neskak, mutil asko bezala. Neska bakoitza neska da, bere erara. Mutil bakoitza mutila da, bere erara. Eta bai ederra norbera den bezalakoa izan ahal izatea!